


Industri prezioak %0,1 jaitsi ziren 2016ko abuztuan aurreko hilaren aldean

Aurreko urtearen aldean (2016ko abuztua 2015ekoaren aldean) %3,3 jaitsi

Eustaten datuen arabera, Euskal AEko industri prezioak %0,1 jaitsi ziren 2016ko abuztuan aurreko hilaren aldean. Datu horiek kontuan, abuztuko urte arteko tasa (azken hamabi hilabeteetan industriako prezioek izandako aldakuntza) %3,3 jaitsi da.



Sektorekako azterketa zehatzak agerian uzten du 2016ko abuztuan honako hauek izan direla inflazionistenak aurreko hilaren aldean: Produktu farmazeutikoen fabrikazioa (%2,7), Ehungintza, jantzigintza, larrugintza eta zapatagintza (%1,4), Erauzketa industriak (%1,2) Jaitsierarik handienak: Energia elektrikoa, gasa, lurruna eta aire egokitua (%-1,2); Altzariak, beste manufaktura industriak, konponketa eta instalazioa (%-1,0); Produktu informatiko, elektroniko eta optikoen fabrikazioa (%-0,6).

2016ko abuztuan, 2015ekoaren aldean, prezio-hazkunderik handienak: Produktu farmazeutikoen fabrikazioa (%6,2), Material eta ekipo elektrikoaren fabrikazioa (%2,8), Elikadura industria, edariak

eta tabakoa (%1,5). Jaitsierak: Energia elektrikoa, gasa , lurruna eta aire egokitua (%-10,6), Kokeriak eta petrolio fintzea (%-10,1), Kautxu, plastikoa eta ez-metalezko beste produktu mineralak (%-3,7).

Ondasunen helburu ekonomikoaren arabera sailkapenari jarraituz, abuztuan, sektore-talde handien prezioen bilakaerak desberdinak izan ziren, aurreko hilekoen aldean. Energiaren prezioetan %-0,6; Bitarteko ondasunetan %-0,1, Bitarteko ondasunetan %+0,2, Kontsumo ondasunetan %+0,2. Azken horien barruan, ez-iraunkorren prezioak %+0,3, iraunkorrenak %0,0.

Urte artean: Energiaren prezioak %-11,7, Bitarteko ondasunenak %-2,6. Ekipo ondasunen prezioak %1,1 gehitu; Kontsumo-ondasunen prezioak guztira %0,8. Azken horien barruan, iraunkorren prezioak %-0,3; ez-iraunkorrenak %+1,2.

Euskal AEko Industriako Prezioen Indizea. Aldakuntza-tasak (p). 2016ko Abuztua

	INDIZEA	ALDAKUNTZA %		
		2016abu / 2016uzt	2016abu / 2015abu	2016abu / 2015abe
INDIZE OROKORRA	102,8	-0,1	-3,3	-1,2
Sektore-banaketa				
Ateratze-industriak	92,1	1,2	-1,8	-1,4
Manufaktura-industria	100,6	0,1	-2,1	-0,3
Energia elektrikoa, gasa eta lurruna	120,4	-1,2	-10,6	-6,8
Industria-sektore handien arabera				
Kontsumo-ondasunak	104,9	0,2	0,8	0,7
Kontsumo-ondasun iraunkorrak	99,3	0,0	-0,3	-0,3
Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrak	106,9	0,3	1,2	1,0
Ekipo-ondasunak	105,2	-0,1	1,1	1,0
Bitarteko ondasunak	101,5	0,2	-2,6	-0,7
Energia	97,3	-0,6	-11,7	-5,6

Oinarria 2010=100

(p) Behin-behinekoak

Iturria: Eustat. Industria-prezioen indizea

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62

Euskal AEko Industria-prezioen indizeari (IPRI) buruzko prentsa-ohar gehiago

Euskal AEko Industria-prezioen indizearen (IPRI) gaineko datu-bankua